

EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAK 2014

GERO ETA LANGABEZIA, POBREZIA ETA DESBERDINTASUN SOZIAL HANDIAGOA

AURKIBIDEA:

1. SARRERA. JAURLARITZAK INFORMAZIOA MANIPULATZEN DU MURRIZKETAK JUSTIFIKATZEKO
2. JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA, 2009TIK HONA TXIKIENA
3. ZOR PUBLIKORAKO GASTUA: EZ DAGO MURRIZKETARIK
4. 2009TIK HONA AHALEGINIK TXIKIENA OSASUNGINTZAN
5. HEZKUNTZAN, AHALEGIN TXIKIAGOA
6. ETXEBIZITZAKO GASTUA BERRIRO ZEHARO JAUSIKO DA
7. JAURLARITZAREN GIZARTERATZEKO POLITIKA MURRIZTAILEA
8. MURRIZKETA OROKORRAK GORABEHERA, EUSKAL Y-AREN PROIEKTUAK AURRERA DARRAI
9. 2014an ERE, ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SOLDATAK IZOZTUTA
10. ONDORIOAK

1. SARRERA. JAURLARITZAK INFORMAZIOA MANIPULATZEN DU MURRIZKETAK JUSTIFIKATZEKO

2014ko ekitaldirako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektuak **ziurtzat ematen du maila guztietako murrizketak izango direla**. Haatik, murriztea aukeretako bat besterik ez da, Euskal Autonomia Erkidegoan agintzen dutenek egin duten hautua, hain zuzen. Izan ere, 2014ko ekitaldirako gastu publikoaren guztirako zenbatekoa bi faktorek baldintzatzen dute:

Lehena, eta eragin handiena duena, Euskal Finantzen Kontseiluan Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek erabaki dituzten **diru-bilketa aurreikuspena**. Aurreikuspen honek diru-sarrera maila oso eskasa finkatu du eta, horrenbestez, murrizteko politikarekin jarraitzea dakar. Sinetsarazi nahi badigute ere baliabide publikoak goitik emanda datozela, zerga kontuan hartutako erabakien arabera dira. EAEko zerga-politikak iruzur fiskal izugarria ahalbidetzen du, eta gainera errenta altuei, enpresei eta kapitalari zergapetze maila txikia ezartzen die; ondorioa, baliabide publikoen maila urria eta erregimen fiskal bidegabea. Europar Batasuneko azken postuetan gaude presio fiskalari dagokionez, eta hori zuzenean lotuta dago gastu publiko txikiarekin.

EAEko erakundeen hautua zerga-politika injustua mantentzea da, dirua biltzeko ahalmen ahula duena. EAJK, PSE-EEK eta PPK hitzartu duten itun fiskalak ez du honekiko aldaketarik ekarriko, eta bilduko den diru kopuruan oso eragin motela izango du (2014n Sozietateen Zerga bidez bildutako dirua jaitsi egingo da, eta PFEZari dagokionez 174 milioi euro gehitu, besterik ez); beraz, gizarteari begira egindako beste fartsa bat dugu.

Gastu publikoa baldintzatzen duen bigarren faktorea **defizit publiko maila** da; honen arabera izango da diru-sarrera publikoak

izateko aukera eta, horrenbestez, baita gastu ahalmena ere. Urkulluren gobernuak aurten ere onartu du bere defizit maila (BPGd-aren %1) Espainiako gobernuak erabakitzea, gainerako erkidego autonomikoekin gertatzen den bezala; honela eskumenekiko zeharo amore ematen du; areago gaurko egoeran, non Eusko Jaurlaritzak zorpetze maila erabakitzerakoan EAEn beharrianak aintzat hartu beharko zituzkeen.

2014ko ekitaldiko aurrekontu-proiektua aurkeztu dute **2013ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuarekiko** aurrerapauso handia bailitzan; hau ere gizarteari iruzur egin nahian. Izan ere, 2013ko aurrekontua onartu ere ez zen egin; 2014koa harekin alderatzean, agerian geratzen da Urkulluren gobernuak 2013an bere aurrekontua kudeatu duela arbuiaututako proiektuaren arabera. ELAk orduan adierazi zuen horixe zela Jaurlaritzaren asmoa.

Iruzkin hauek soilik egin ditugu kokatzeko 2014ko ekitaldiko aurrekontuari buruzko eztabaida zein testuingurutan gertatu den; beharrezko jo izan dugu proiektuaren azterketa xehetua egin aurretik.

2. JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA, 2009TIK HONA TXIKIENA

2014ko ekitaldirako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektuak 10.215,5 milioi euro aurreikusi ditu; hauei 350,7 milioi kendu beharko litzaieke, EAEko trenbide-sare berria kudeatzeko kredituak baitira, hots, ez gobernuaren benetako gastua. Zenbateko hori Espainiako gobernuak itzuli egingo dio. Beraz, **aurrekontu proiektuan jaso den Jaurlaritzaren gastu erreala 9.864,8 milioi euro dira**.

2009tik hona itxi diren ekitaldi guztietako gasturik txikiena da eurotan; urte hura hartzen dugu alderatzeko abiapuntutzat, orduan hasi

baitziren krisi ekonomikoaren aldi honetako aurrekontu-murrizketak (salbuespena 2013ko ekitaldia litzateke; honi buruzko datua itxiera aurreikuspena da, eta datu zalantzarria). 1 taulan ikus daiteke urtez urte Eusko Jaurlaritzaren gastuak izan duen gainbehera. Esaterako, datorren urterako aurrekontu-proiektuan 2009 urteko gastuarekiko 389,7 milioi euro gutxiago daude; 2009an Jaurlaritzaren gastu publikoa 10.254,5 milioi euro izan ziren. Beraz, 2014rako aurrekontuetan jaso den gastua 2009an egindako gastuarekiko %3,8ko jaitsiera da.

Murrizketa are handiagoa litzateke aintzat hartuz gero Eusko Jaurlaritzak 2011tik hona enplegu-politika aktiboetan egiten ari den gastua; hau gero Espainiako gobernuak itzultzen dio kupo bidez. Ez dugu egin Jaurlaritzak informazio hau ez duelako ematen; badakigu, halere, 2011an BPGd-aren %0,7 izan zela, eta 2012an, %0,9a.

Aurrekontuetako zuzkiduraz harago, **BPGd-an duten pisua azertu behar da**, horrela erabaki baitaiteke zer nola bilakatzen diren, ekonomiaren joera aintzat hartuta, osasungintza, irakaskuntza eta beste hainbat arlotan.

2014ko ekitaldirako aurrekontuan aurreikusi den gastua BPGd-aren %14,9 da, hots, 2014an ekonomian sortu den 100 euroko 14,9 Jaurlaritzaren gastu publikora bideratuko dira. Datu hau ere krisi ekonomiko aldi honetako murrizketak hasi zirenetik hona txikiena da. Horrek esan nahi du Jaurlaritzak gastu publikoan egiten duen ahalegina ekonomiaren bilakaerarekiko murriztu egin dela.

1 taulan ikus daiteke Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa 2009ko ekitaldian BPGd-aren %16 izan zela, eta hau etengabe eta mailaka 2014ko %14,9raino gutxitu dela (BPGd-aren %15,6 2010ean, %15,2, 2011n, %15,3, 2012an eta %14,3, 2013an). Beraz, gobernuak 2009ko ekitaldikoa ahalegin bera egin nahiko balu

2014rako 743,2 milioi euro gehiago aurreikusi beharko zukeen bere proiektuan. 2009ko ekitalditik hona aurrekontuen jaitsiera BPGd-arekiko (743,2 milioi euro) eurotan izandako murrizketa baino handiagoa da (389,7 milioi), enplegu-politika aktiboetako zenbatekoak kendu gabe; honek esan nahi du **Jaurlaritzaren gastu publikoa ekonomia baino areago jaitsi dela**.

1 TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA (MILIOI EUROTAN ETA %/BPGd). 2009-2014 (*)

2009	2010	2011	2012	2013	2014
10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.252,2	9.864,8
%16,0	%15,6	%15,2	%15,3	%14,3	%14,9

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat

(*) 50 milioi euro deskontatu dira 2009ko ekitaldian, 167 milioi 2010ean, 218,3 milioi 2011n, 347,7 milioi 2012an, 340 milioi 2013an eta 350,7 milioi 2014an; zenbateko hauek Jaurlaritzak aurreratu egiten ditu abiadura handiko trenbidea eraikitzeko, baina Espainiako gobernuak gero itzuli egiten dizkio kupo bidez. Halaber, 2011tik hona ere deskontatu egin beharko lirake Jaurlaritzak enplegu-politika aktiboaren eskumena medio kupo bidez jasotzen dituen zenbatekoak, baina hauei buruzko informazio ofizialik ez dago.

3. ZOR PUBLIKORAKO GASTUA: EZ DAGO MURRIZKETARIK

Gastu publikoa oro har murriztuagatik, **zor publikorako gastuaren atalak azken urteetan hazkunde esponentziala izan du**. Hain zuzen, partida honetarako 2014ko ekitaldian aurreikusi den gastua 792 milioi euro dira (537,4 milioi aurreko ekitaldietan hartutako zorra amortizatzeko, eta 254,5 milioi, interesak

ordaintzeko).

2. taulan ikus daiteke nola gehitzen diren Jaurlaritzaren zor publikoa ordaintzeko urtez-urteko kopuruak, amortizazioei zein interesei dagokienez. **Kontzeptu honetara bideratu den urteko zenbatekoa 9,5 bider handitu da 2009 eta 2014 bitartean.**

2 TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN URTEKO GASTUA ZOR PUBLIKOAN (MILIOI €). 2009-2014

	AMORTIZACIÓN	INTERESES	GASTO
2009	61,2	22,5	83,6
2010	123,7	74,3	198,0
2011	169,5	143,4	312,9
2012	174,5	190,3	364,8
2013	199,9	233,1	433,0
2014	537,4	254,5	792,0

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra

3. taulan ikus daitekeenez, **zorra ordaintzeko gastua kenduta** gorago aipatutako %3,8ko aurrekontu-murrizketa **askoz handiagoa litzateke**: Aurrekontu-proiektuan jasotako zuzkidura 2009ko ekitaldian egindako gastua baino 1.098 milioi euro txikiagoa litzateke, hots, %10,8ko murrizketa izango luke, 2009ko 10.170,9 milioietatik 2014ko 9.072,9etara jausiko bailitzateke. Halaber, BPGd-an gastu publikoak duen pisua %13,7koa litzateke, eta ez aipatu den %14,9 hori.

3. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA ETA ZOR PUBLIKOA, GUZTIA ETA ZORRAREN ORDAINKETARIK GABE (MILIOI € ETA BPGd %). EAE, 2009-2014

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
GUZTIKAKO GASTUA	10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.252,2	9.864,8
GUZT. GASTUA-ZOR ORDAINA	10.170,9	9.962,6	9.642,0	9.533,9	8.819,3	9.072,9
GASTUA %BPGd	%16	%15,6	%15,2	%15,3	%14,3	%14,9
ZOR-GASTUA %BPGd	%15,9	%15,3	%14,7	%14,7	%13,6	%13,7


Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Bestalde, Jaurlaritzak 2014an gehienez 1.315,31 milioi euroko zorra jaulkitzeko asmoa du; hau betez gero, **zor bizia ekitaldian 777,9 milioi eurotan gehituko litzateke.**

Horrenbestez, **Jaurlaritzaren zor bizia** 2014ko ekitaldian 7.905 milioi eurokoa izango da, hots, **BPGdaren %11,9**. Zorraren pisua Jaurlaritzaren 2014ko ekitaldiko gastu osoak BPGd-an duen pisua baino 3 puntu gutxiago besterik ez da.

1 grafikoak adierazten du Jaurlaritzaren zor biziak 2009ko ekitalditik hona izan duen bilakaera; urte hartan 2.080 milioi eurokoa zen, eta BPGd-aren %3,3an zegoen. Beraz, 2014an zor bizia 2009koa baino 3,8 bider handiagoa izango da.

1 GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ZORPETZE MAILA (%/BPGd). 2009-2014



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Gogoratzekoa da zorraren ordaina bilakatu dela lehentasun, gobernuen beste edozein gasturen gainera, Zapaterok eta Rajoyek 2011ko uda betean erabaki zuten Konstituzioaren erreforma medio. Gainera, hain zuzen bankuek, beren zor pribatua zor publiko bihurtu dutenek, erosten dute zor publikoa.

4. 2009TIK HONA AHALEGINIK TXIKIENA OSASUNGINTZAN

Aurrekontu-proiektuan osasungintzarako 3.351,6 milioi euro aurreikusi dira, 2009tik hona itxi diren ekitaldi guztietako zenbatekorik txikiena eurotan; urte hartan 3.508,9 milioi euro gastatu ziren osasun sisteman. Hots, osasuneko gastua 2009 urtearekiko 157,3 milioi eurotan murriztuko da, eta ondorioz %4,5eko jaitsiera izango du.

4. taulan ikus daiteke osasuneko gastu publikoak 2009ko ekitalditik hona eurotan izan duen jaitsiera orokorra, baita BPGd-arekiko ere. Gastu hau BPGd-aren %5,06 izango da 2014an, 2009an baino BPGd-ko 0,42 puntu gutxiago alegia, eta horrenbestez, aztertutako epealdian izan den ekitaldi guztietako txikiena. 2009ko ahalegin bera egin balitz, aurrekontu-proiektuak orain egindako zuzkidura baino 278,2 milioi euro handiagoa jaso beharko zukeen.

4. TAULA. JAURLARITZAREN OSASUNeko GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2014


2009	2010	2011	2012	2013	2014
3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.308,5	3.351,6
%5,48	%5,44	%5,20	%5,20	%5,11	%5,06

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Murriztu ahala nazioarteko errealitatetik are urrunago geratu gara. 2. grafikoak adierazten du ELGE baitako gure kokapena: EAEko osasuneko gastu publikoaren portzentajea BPGd-arekiko azken postuetan dago (aztertutako estatuetatik soilik Turkia, Estonia eta Polonia daude okerrago).

ELGEn, espainiar Estatuan bezala, 2011ko ekitaldian osasuneko gastu publikora batez beste BPGd-aren %6,8koa izan zen, EAEko %5,2a baino 1,6 puntu gehiago; beraz, ELGEko edo espainiar Estatuko ahalegin bera eginez gero 1.050,8 milioi euro gehiago gastatu behar izango ziratekeen, hots, %30,8 gehiago.

2. GRAFIKOA. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA (%/BPGd). ELGE, 2011



Iturriak: ELGE, Eusko Jaurlaritza, Eustat

5. HEZKUNTZAN, AHALEGIN TXIKIAGOA

2014ko aurrekontu-proiektuan hezkuntzara bideratutako gastu publikoa 2.760,9 milioi euro dira, 2009an baino 63,2 milioi gutxiago (%2,2ko murrizketa esan nahi du horrek). Hezkuntzarako gastu publikoa BPGd-aren %4,17 izango da, 2009an baino 0,24 puntu gutxiago alegia. Eurotan eta BPGd portzentaje gisa ez bada ere aztertutako epealdiko kopururik txikiena, 2009 urtearekiko jaitsiera dago. Hain zuzen, hezkuntzako gastu publikoan urte hartako ahalegin bera eginez gero, aurrekontu-proiektuak 160,5 milioi euro gehiago jaso beharko zituzkeen.


5. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2014

2009	2010	2011	2012	2013	2014
2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.625,1	2.683,1	2.760,9
%4,41	%4,27	%4,13	%4,06	%4,14	%4,17

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

3. grafikoan ikus daitekeenez, hezkuntzako gastu publikoan egindako ahalegina oraindik nazioarteko ingurukoa baino askoz apalagoa da (aztertutako estatuen artean, soilik Eslovakia Errepublikak eta Txekiar Errepublikak egiten dute ahalegin txikiagoa). 2010eko ekitaldian ELGEko batez besteko hezkuntzarako gastu publikoa BPGd-aren %5,4 izan zen, EAeko %4,3a baino 1,1 puntu handiagoa; honek 732,9 milioi euroko defizita esan nahi du, %26,3koa alegia. Espainiar estatuak (BPGd-aren %4,8) EAek baino 0,5 puntu gehiago bideratzen du hezkuntzara.

3. GRAFIKOA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (%/BPGd). ELGE, 2010




Iturriak: ELGE, Eusko Jaurlaritza, Eustat

Hauek dira Jaurlaritzak hezkuntza-tarteen arabera 2014rako erabaki dituen aurrekontuak:

- 310,9 milioi euro unibertsitate mailarako (BPGd-aren %0,47).
- 896,5 milioi bigarren hezkuntza eta lanbide heziketarako, BPGd-aren %1,35.
- 905,1 milioi euro haur- eta lehen hezkuntzarako, hots, BPGd-aren %1,37.

4. grafikoan ikus daiteke hezkuntza-tarte guztietan jaitsiera orokorra izan dela, 2009tik hona itxitako ekitaldi guztietan.

4. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA GASTU PUBLIKOA TARTEEN ARABERA (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2014



Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

6. ETXEBIZITZAKO GASTUA BERRIRO ZEHARO JAUSIKO DA

6. taularen arabera, etxebizitzako gastu publikorako aurrekontu-proiektuak 103,9 milioi euro jaso ditu; partida hau aztertutako epealdian urtez urte erori egin da. Gastua 2009an 217,39 milioi euro izan ziren, eta 2014an kopuru horren erdira ere ez da iritsiko. Izandako gainbeheraren ondoren etxebizitzako gastu publikoa 2014an BPGd-aren %0,16 urrian geratuko da, 2009an %0,34 zelarik; honek 120,9 milioi euroko jaitsiera adierazten du.

Euro kopurua zein BPGd-arekiko portzentajea aztertutako epealdiko txikienak dira; hau hankasartze handia da egungo egoeran, non 100.000 pertsona dagoen bizimodu independente bat egiteko baliabide nahikorik gabe eta noiznahi hipoteka ordaindu ezinaren ondorioz etxetik kaleratutakoen tragedia presente dagoenean.

6. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZARAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPGd).2009-2014

2009	2010	2011	2012	2013	2014
217,4	182,6	123,0	146,2	122,6	103,9
0,34%	0,28%	0,19%	0,19%	0,19%	0,19%

Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

7. JAURLARITZAREN GIZARATERATZEKO POLITIKA MURRIZTAILEA

Eusko Jaurlaritzaren gizarteratze politika batik bat prestazio ekonomikoaren bidez gauzatzen da: Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE edo RGI), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO edo PCV) eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL edo AES); hauek aztertuko ditugu ondoren.

Datu guztiek diote pobrezia hedatzen ari dela. Pobreziaren eta desberdintasun sozialen inkestan jasotako informazioaz gainera, hau aipa daiteke:

- EAEko hiru hiriburuek egindako azterketaren arabera, 1.800tik gora pertsona dago bazterketa egoera larrian (bizilekurik gabeko jendea, gizarterbitzuen ohean edo kalean lo egitera behartuta dagoena); horietatik 300dik gora gaua kalean ematen dute. Ikerketa egiterakoan bazterketa oso larria pairatzen zuten arren, pertsona hauetako %18,4ak besterik ez du Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen. Gainera, bostetik batek ez dauka inolako diru-sarrerarik.
- Caritas eta elikagaien bankuei egindako eskariak %40 gehitu dira (dagoeneko 35.000 familiak jaten du erakunde hauei esker).
- 2008 eta 2013 (I hiruilekoa) bitartean 11.000 familia geratu da etxerik gabe.

Egoera hau delarik, Jaurlaritzaren jarrera oso pasiboa da, eta lehenasuna ematen dio gastua mugatzeari. Honen adibide bat da **Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako** aurreikusi den partida, 20,5 milioi euro, aurreko urteekiko 3,2 milioi euro gehitzen delarik (aurreko ekitaldietan kopurua izoztuta mantendu izan dute). Kopurua gehitzea betiere positiboa bada ere, arlo honetarako dirua oso urria da, urte erdirako agortu izan baita azken aldion; hobereenera jota ere, hilabete gehiago luzatzeko aukera baino ez du emango. Beste sindikatu eta mugimendu sozial batzuekin batera, ELA aldarrikatzen ari da GLLak ez daitezela aurrekontu mugatu batekin lotuta egon, gaur gertatzen den bezala, eta eskubide gisa aitor daitezela, laguntza sortu zenean teoriarik asetu beharreko beharrianak osatzeko.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako eta **Etxebizitzarako Prestazio Osagarriarako** 384,5 milioi euro aurreikusi dira aurrekontu-proiektuan. Bietan ere murrizketak egin dituzte azken urteotan, zenbatekoari dagokionez zein jasotzeko baldintzetan. EPOaren gehienezko zenbatekoa berriro 250 € izango da, *“inolako baldintza medio ezin delarik gehitu”*, hots, esaterako, edozein dela ere bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen kopurua.

Bestalde, DBEaren zenbatekoa (famili- eta lan-bizitza kontziliatzeko prestazioak bezalaxe) 2012ko ekitaldiko Aurrekontu-Proiektuan Patxi Lopezen gobernuak hasi zuen %7ko jaitsiera jasango du berriro.

Gainera, DBEa jasotzeko irizpide berriak ezarri dira, eta horrek oztopo gehiago jartzen die eskatzaileei; baliabide ekonomikorik ez duen jende asko prestaziorik gabe utziko dute horrela. Batetik, DBEa kendu egingo zaie etxetik kaleratu eta senideen bizilekuan hartzen dituzten guraso bakarreko familiei, senar-emazteei eta bikoteei. Bestetik, aurreko gobernuak egin zuen legea aplikatuz, DBEa jasotzeko gehienezko epe bat

ezartzen da soldata apaleko enplegu prekarioa dutenentzat. Honi gehitu behar zaio, gainera, Lanbideko erabiltzaileak sarri atzerapenak jasan behar dituztela zerbitzuan, langile nahikorik ez dagoelako eta arduradun politikoak ez direlako erakundea taxuz kudeatzeko gaia.

Hortaz, gizarte-prestazioak alde aurretik agortzen dira aurrekontua urriegia zelako, edota irizpide murriztaileak ezartzen zaizkie, gero eta jende gehiago baztertzen dituztenak, baliabide ekonomikorik ez dagoela argudiatuta. Aurrekontu-proiektuan 405 milioi euro bideratuko dira herritarrik behartsuenak miseriatik ateratzeko prestazio hauetara; aldiz, 792 milioirekin ordainduko da zorra, zerga-politika injustu baten ondorioz puztu dena. Baliabideak badaude, eta gehiago ere egon daitezke. Horregatik, gure aldarrikapena da prestazio sozialekin bermatu egin behar zaiela bizimodu duina egiteko aukera krisiak gogorren jo dituen pertsonen, eta atzera egin behar dela azken urteetako murrizketetan.

8. MURRIZKETA OROKORRAK GORABEHERA, EUSKAL Y-AREN PROIEKTUAK AURRERA DARRAI

Euskal Y-a edo Abiadura Handiko Trenerako (AHT) **aurrekontu-zuzkidura** 365,3 milioi eurokoa izango da (14,6 milioi zuzenean Jaurlaritzak jarriko ditu, eta Espainiako Gobernuak ustez gainerako 350,7 milioiak itzuliko dizkio, kupo bidez); honek esan nahi du azpiegitura honetara BPGd-aren %0,55 bideratuko dela.

AHTaren kostua zenbatekoa den kontu egiteko, gogora dezagun 2014ko ekitaldirako aurrekontuan jaso den zenbatekoa (365,3 milioi) DBE eta EPOaren baturaren antzekoa dela (bien artean 384,5 milioi), unibertsitate-hezkuntza baino handiagoa (310,9 milioi) eta etxebizitza baino hiru bider handiagoa (103,9 milioi). Kontua da **administrazioek nahi dutenerako badagoela dirua.**

Areago, 7. taulan ikus daitekeenez, AHTrako partidak krisiaren poderioz ez dira gutxitu; aitzitik, **2009 eta 2012 bitartean asko hazi dira.**, ordutik ia bere hortan mantendu direlarik. AHTak 2009tik hona 1.615,8 milioi euro irentsi ditu (batez beste urte horietako BPGd-aren %0,41).

7. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA ESPAINIAKO GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOAK AHT-AN (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2014

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	TOTAL
BEREZKO FINANTZAZIOA	21,5	20,1	29,1	29,1	27,8	14,6	142,1
KUDEAKETA KREDITOAK	50,0	167,0	218,3	347,7	340,0	350,7	1.473,7
GUZTIA	71,5	187,1	247,4	376,8	367,8	365,3	1.615,8
BPGd %	%0,11	%0,29	%0,38	%0,58	%0,57	%0,55	%0,41

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Aipatu beharra dago, gainera, euskal Y-rako aurrekontuan **gainkostu** handiak gertatzen ari direla (une hartan 437 milioi euro, Sustapen Ministerioaren esanetan). Bada, aurrekontu-proiektuan 2014ko ekitaldirako beste 97,6 milioi euro daude aurreikusita. Beraz, ez dakigu proiektu honetarako hasieran aurreikusitako 4.178 milioiak zenbateko kopururaino puztuko diren.

ELAk hasieratik agertu du mega-azpiegitura honen aurkako jarrera, kostu ekologiko, sozial eta ekonomiko izugarriak izango dituen, gainera ez baitu EAEko garraioek dituzten arazoak konponduko. Jarrera honek indar handiagoa hartu du orain, izan ere, krisiaren ondorioz euskal Y-a loturarik gabe geratu dela baitirudi, hegoaldera, penintsulako sarera, zein Iparraldera, Europa aldera; beraz, bakartuta gera liteke, EAEko hiru hiriburuak baino ez dituela lotzen.

Haatik, aurrekontuko partida sozialak azken urteetan zeharo murriztu dituzte eta espainiar estatuko beste inguruetakoa abiadura handiko tren proiektuak ia geldirik daudela, euskal Y-rako funtsak ez dira agortzen, errealitatetik at, bere

“irlan” sartuta. Euskal Yarentzat ez dago krisirik, antza.

Euskal Y-aren lanak berehala gelditu behar dira, eta horri esker geratzen diren baliabideak gizarte-gastura bideratu.

9. 2014an ERE, ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SOLDATAK IZOZTUTA

Lan-baldintzak ere ez daude salbu eskubide sozial eta laboral guztiek pairatzen dituzten murrizketetatik. Hain zuzen, aurrekontu-proiektuak dio lan-baldintzak **izoztu** eta gainera **eten** egin behar direla *“ordainsari igoerak ekar ditzaketen akordio, hitzarmen edo itunak”*. Hartara, aurrez hitzartuta egon zitezkeen hobekuntzak ere indargabetzea ezarri nahi du. Gainera, beste murrizketa batzuk ere jasotzen ditu, esaterako indargabetu egingo direla *“borondatezko erretiroa hartzeko sariak arautzen dituzten artikulua eta klausulak”* eta *“adinagatik soldata gutxitu gabe lanaldi aldaketarako eskubidea ematen duten ordu-baimenak”*.

Horrela, 2014.rekin soldatak izoztuta laugarren urtez egongo liriteke (2011-2014), 2010ean Zapateroren dekretuz soldatak %5 jaitsi ostean.

Bestalde, berariaz aipatzen du *“lan-baldintzei buruzko akordioak, hitzarmen kolektiboak, soldata berrikuspenak edota dagoeneko indarrean dauden beste hitzarmen batzuei erabat edo zati batean atxikitze edo hedatzeko akordioak (...) Gobernu-Kontseiluak onartuko ditu”*, hots, Eusko Jaurlaritzak **negoziazio kolektiboaren ahalmen oso eta eskusiboa bereganatzen du** oraingoan ere; hau bere langileen ordezkari eta interesen defentsa oso modu larrian urratzea da.

Enpleguari buruz, hutsik dauden lanpostu guztiak ez betetzeko politika mantenduko dute; honek

lanpostuak gutxitzea ekarriko du eta zerbitzu publikoen kalitatea okertzea.

Halaber, lanaren prekarietateak enplegua nahierara kudeatzeko aukera ematen du, eta onartu ezinako egoerak eragiten ditu, esaterako, Lanbiden gertatzen ari dena.

10. ONDORIOAK

2014ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuaren ezaugarria gastu publikoaren jaitsiera eta **gai sozial eta laboraletan egindako murrizketak** dira, 2009an hasitako joerari jarraiki (egungo krisi ekonomiko aldia hasi zenean, alegia).

Aurkakoa sinetsarazi nahi badigute ere, kontua da Jaurlaritzaren gastu publikoak ekonomian duen pisua gutxitu egin dela: **krisia aitzakia bat besterik ez da** bere ideologiak eskatzen dituen **murrizketak egiteko**. Sektore publikoa zenbat eta gehiago ahuldu, are negozio handiagoa egin dezake arlo pribatuak.

Mozketak zurrizteko diote krisiaren ondorioz diru-sarrerak urriegiak direla. Halere, 8. taulak erakusten digu baliabide publikoek ekonomian duten pisua krisi aurreko urteetan baino askoz ere txikiagoa dela: 2007ko BPGd-ren %20,9tik 2012ko %17,6raino erori da (dauden azken datuak urte honi buruzkoak dira). Beraz, **diru-sarrerak ekonomia baino areago gutxitu dira**.

8. TAULA. FORU-ALDUNDIEN DIRU-SARRERAK
(%/BPGd). 2007-2013*

2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
%20,9	%19,0	%16,9	%18,0	%17,5	%17,6	%18,3

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

() Biltzea aurreikusten den zenbatekoa*

Jaitsiera hau zerga-politika baten ondorio da, gero eta leunago jokatzen baitu elusio eta iruzur fiskalarekin, baita azken urteetan hartutako erabaki atzerakoien fruitu ere: errenta altuen, kapital- eta enpresa-errenten gaineko presioa arindu egin da (ikus txosten fiskala: http://www.mrafundazioa.org/eu/dokumentazio-zentrua/azterketak/azterketak-27-bidezko-zerga-politika-baten-alde?set_language=es).

Txosten honen sarreran esan dugunez, diru-sarrera maila **Madrilek erabakitako %1ko defizit publiko maila onartzearen** ondorio ere bada. Baina gainera, urtero bezala, Foru-Aldundiek 2014an dirutza bildu gabe geratuko dira (5.540 milioi, hots, BPGd-aren %8,4). Beraz, ogasunen diru-sarrerak %46 handiagoak izan zitezkeen zerga-arintze, kenketa etab. aplikatuko ez balituzte (oro har erregresiboak dira).

Zerga-sistema finkaturik eta Rajoyek ezartzen duen defizit publiko muga onarturik, Jaurlaritzak gastuari aurre egiteko **zor publikoaren** bidetik jotzen du; honek, ikusi dugunez, **hazkunde esponontziala** izan du. Zor publikoa interes kolektiboak finantzatzeko tresna izan beharko litzateke, ez baliabide publikoak arlo pribatuaren sektore bati transferitzeko. Halere, kasu honetan elite ekonomiko baten mesedetan izandako baliabide publiko jaitsiera konpentsatzeko gertatu da, eta horrenbestez zati handi batean **zor ilegítimo**tzat jo beharko litzateke. Horregatik beharrezkoa da herritar-auditoria bat egitea erabakitzeke Jaurlaritzaren zor publikoaren zein portzentaje ez den zilegizkoa, eta zati hori ez ordaintzea. Zilegi den zorra dauden baliabideen arabera birnegoziatu beharko litzateke, izan ere, ikusi dugunez, zorraren ordainak gainerako gastu sozialari eragiten baitio.

Diru-bilketa maila txikiagoa eta gastu murriztua (baita zor publiko tasa altua ere), hautu politikoa bat da, Jaurlaritzak egin duen hautua. Aukera honek herritarren langabezia eta txirotasun

egoera areago okertzen du. Esan dugun bezala, hautu bat da, baina garrantzitsua da esatea alternatibarik baduela: diru-sarrera publiko maila hobetzea posible eta beharrezkoa da (elusio eta iruzurrari jazarriz gero, eta errenta nahiz ondare handienei, kapital- eta enpresa-errentei ekinez), horrela gastu publikoa gehitzearren, bizimodu duin eta kalitatezkoa posible izan dadin herritar guztientzat, eta kalitatezko enplegua sortzeko politika posible egitearren. Lehen urratsa izan daiteke Europar Batasuneko batez besteko

mailarekin parekatzea presio fiskalari eta gizarte-gastuari dagokionez: han posible dena hemen ere egingarria da.

Argi dago, ordea, Eusko Jaurlaritzak beste zerbait erabaki duela, bere politikari eustea gure herrian langabezia, pobrezia eta desberdintasun sozialak gero eta handiagoak izan daitezen.

AZTERKETA BULEGOA